



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 17koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2016-2017ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beka-eskaeren ebazpen-proposamena, hautaketa-batzordeak aurkeztuta, ematen du.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak, 2016ko uztailaren 8ko aginduaren bitartez (2016ko uztailaren 13ko EHAA), 2016-2017ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat.

2016ko uztailaren 8ko Aginduaren III. Eranskinaren 11. Artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, aurkeztutako eskaeren ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

**EBAZTEN DUT:**

Lehenengo artikulua.- Jakinarazi 2016-2017ko ikasturtean, etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak; II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak; eta III. eranskinean zerrendatzen dira, lehentasun-ordenaren arabera, ordezkoen zerrenda osatzen duten eskaerak.

Bigarren artikulua.- 15 egun naturaleko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 17a.

**UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA/  
LA DIRECTORA DE POLÍTICA Y COORDINACIÓN UNIVERSITARIA**

**Miren Artaraz Miñón**